



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Johanna Gustafsson Furst ◊ Artista

Suediarra izan arren, euskal artearen aire bat dute Johanna Gustafsson Furst artistaren lanek. Behin baino gehiagotan entzun du hori, behintzat, eta zergatik izan daitekeen jakitera etorri da Bilbora.

«Kontzeptualki pentsatzen dut materialez, eta materialki kontzeptuez»

Iñigo Astiz Bilbo

Suediarra da Johanna Gustafsson Furst artista (1973, Stockholm); Suedian jaioa, Suedian ikasia, eta Suedian sortzaile ari-tua. Suediarra. Eta hor dator sorpresa, dioenez behin baino gehiagotan entzun baitu bere arte lanek badutela euskal eskulturagileen lanen aire bat. Eta zergatia ikertzeraz etorri da orain Euskal Herrira. Consonni arte ekoizpen etxeak gonbidatu du Bilboko bere bulegora aste batzuetarako, eta ikerketan aritu da bertan. Ezagun zituen Txillida, Basterretxea eta Oteiza —Oteiza, batez ere—, eta hurrengo belaunaldiak jarri dute orain harremanetan Consonnikoek: Txomin Badiolarekin, Lorea Alfarorekin, Asier Mendizabalekin... Bi performance ere egin ditu, gainera, Cortes kaleko egoitzan. Lisa Torel artistaren laguntza izan du bigarren, baina politikaren eta artearen bigegurutzeari aritu da bietan. Dioenez, horrek lotu dezake euskal tradizioarekin. Susmo hori du berak.

Aste pare bat eman dituzu euskal artisten lanak ezagutzen. Deskubritu duzu zerk lotzen zaituen haiekin? Behin-behineko iritzi bat baino ez dut, oraingoz. Irudipena dut garai

batean bereizketa bat egon zela formalismoaren eta kontzeptualismoaren artean baina Euskal Herrian hori ez zela hain era argian gertatu. Txillida formalagoa zen, ados, eta Oteiza kontzeptualagoa, baina Oteizak indar handia zuen. Artean eta gizarte eta politikari gaitan murgilduta zegoen. Eta, beraz, euskal tradizioan bada alor soziala, formala eta kontzeptualak bereizi gabe landu zituen figura oso garrantzitsu bat. Horrek konfiantza eman die hurrengo belaunaldiei lan egiteko modu horri eusteko eta materialen hiz-

kuntzari adi jarraitzeko. Nire ustez, adalontzia badelako hizkuntza, eta mahaia ere bai, eta kristal hori, eta...

Zuk ere ez dituzu, beraz, kontzeptua eta materiala bereizten, ezta?

Ez ditut banatzen. Kontzeptualki pentsatzen dut materialaz, eta materialki kontzeptuez. Ezin ditut bereizi. Eta, bestetik, Oteizak gizarte gaiekiko eta politikarekiko zuen atxikimendu horrek ere lotzen nau haren lanarekin, nik uste. Horregatik izan da hain garrantzitsua arkitektoekin izan dudana elkarlana niretzat: gizar-

tea materializatzeko bide bat baita arkitektura.

Bilbon egin dituzun bi piezak performanceak izan dira. Eskulturak eta bestelakoak ere egiten dituzu?

Hizkuntza eta lekuarekin oso lotuta dago nire lana beti, eta beti jarri diot arreta handia eskulturaren alde performatiboari: ikusleak nola mugitzen diren, nola erantzuten duten... Consonnin egindako lehen pieza ere eskultura-performance bat izan da. Oihal beltz batzuekin bulegoaren espazio barruan beste espazio bat erakiki dut, eta oso presente izan dut bulegoak kalearekin eta hiriarekin duen harremana ere. Eta antzezlan moduko bat egin dut gero Peter Weissen idazlanetatik abiatuta. Klabea izan zen Weiss nire artista izateko gogoia pizteko. Idazlea, artista, aktibista... Badu liburu bat, *Erresistentziaren estetika*, II. Mundu Gerra aurrean idatzitakoa, eta ataletariko batean, Gericault margolariaren *Medusaren baltsa* deskribatzen du. Hura ere krisigarai batean sortua eta politikarekin estuki lotutakoa. Ni ere politikoki oso aktiboa zen familia batean hazia naiz Suedian, baina bat-batean eten egin zen interes politikoa, neurri batean. Krisiak eta eskuin muturra gobernuratzak aldatu du hori berriz. Dena pribatizatzen ari dira, eta itzuli egin da politika. Zain bezala egon nintzen denbora batez, protesta egitera ateratzeko tresnak noiz helduko.

Hori bera dio zure piezako testuak: «Ezin gara zain egon ideologia egoia noiz helduko den edo ziur noiz egongo garen».

Niretzat, hitzak zeuden lehenik, eta akzioa gero zertorren, baina baliteke gorputzak eman behar izatea lehen bultzada, eta horri buruzkoa da testua. Behin ulertzen duzunean kanpora joan behar dela, ezin duzu aritu kanpora jo behar dela esaten: kanpora jo behar duzu. Eta hori da bigarren performancean egin duguna. [Kalean egin dute *Outlined Clearly* / *Clean Out* performancea]. **Gericaulten margolana dramatiko da. Etsigarria. Ozeano erdian dagoen du salbaziorako aukera bakarria eskaintzen dion itsasontzitik. Zail egin irudi horretan aktibismo politikorako bultzada bat aurkitzea.**

Margolana negargarria da. Baina hain da latza, non ohartarazten baitizu du zeu bizirik zaudela. Zeure burua zeure bururantz jaurtitzera eramaten zaituela. Zeure uneko egoeraz ohartzera. Zeure gorputzaz jabetzera. Uler-tarazten dizu zu ikusle zarelara eta ez zaudela deshidrataturik. Baduzula aukera irudiko eszena horretara ez heltzeko. Hori baita Europan egun gertatzen ari dena, itsasontzirako sokak moztu, eta jendea ozeanoan jitoan flotatzen utzi nahi dute. Koadroak bizirik sentiarazten zaitu. Gorputzaren bat-bateko oharpen horrek ematen du bultzada.

‘Hyptonisören’ filma euskaraz estreinatuko dute Donostian eta Erreterian

‘Thriller’ moldeak ditu, eta Lasse Halstromek Donostiako Zinemaldian estreinatu zuen irailean

Erredakzioa Donostia

Hypnotisören, Lasse Halstrom suediarra zuzendutako azkeneko filma, euskaraz eta *Hipnotizatzailea* izenburuarekin estreinatuko dute gaur, Donostiako Bretxan eta Erreterian Niessen aretoan (Gipuzkoa). Zineuskadi elkarteak kudeatzen duen Zinema Euskaraz programaren barruan emango dute filma

Filma Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten iaz. Lars Keplerren *best seller*-aren egokitzapena da. Stockholmeko familia baten hilketa basatiak polizia ikerketa bat abiaraziko du. Arrastorik ez duenez, Joonna Linn auzitegiko komisarioak Erik Maria Bark hipnotizatzaile ospetsuaren laguntza eskatu du, bizirik atera den familiako kide bakarra, shock egoeran dagoen hamabost urteko mutikoa galdekatzeko.

→ Laburrak

Zipfel Garcia poeta guatemalarra hil da

LITERATURA ◊ Carlos Alfonso Zipfel Garcia idazle guatemalarra atzo hil zen, bere etxean izandako sute baten ondorioz. Poeta, 76 urtekoa, bakarrik zegoen etxean su piztu zenean. Zipfel Garcia hamarnaka sari jaso zituen bere ibilbidean, eta liburu hauek idatzi zituen, besteak beste: *De paso y travesía*, *Poesía sin motivo* eta *Cantos de amor para la Antigua Guatemala*.

Perez Urkijoren lan bat jarri dute Deustuko zubian

ARTEA ◊ Mikeldi Perez Urkijoren Geometria Abstraktua eta Tanketak lana jarri dute Deustuko Zubian, Bilbon. EHUko Arte Ederren fakultateko ikasleek toki horretan egiten duten lagunen esku hartzea da, eta Juan Pablo Orduñez irakasleak abiatutako proiektu baten barruan kokatzen da. Iragan industrialeko espazioa esku hartze artistikotarako baliatu nahi dute.

Woolf euskaraz argitaratu du Consonnik, eta arte programazio jarraia jarri du abian

→ **Gela bat norberarena.** Cortes kalean lokal propioa lortu, eta Virginia Woolfen lanik ezagunenaren irakurketa bat egiteko asmoa zuten Bilboko Consonni arte ekoiztetxeko kideek. Liburua euskaraz aurkitu ez, eta itzulpena haiek egitea erabaki dute. Finantzaketa kolektibo bidez bildu dute dirua; Maria Colera Intxaustik itzuli du lana, eta Kajsa Dahlberg artistak esku hartze bat egin dio. Beren webgunean dute salgai (www.consonni.org).

Programazio kateatu bat ere antolatu dute egoitza berrian. Epe motzeko gonbidapena egin diete hainbat artistari, eta bi baldintza jarri: egoitzarako lan bat egitea eta aurretik bertan izan den sortzailearen lana jarraitzea. Pablo Martek abiatu zuen saioa martxoan, eta hark egindako lana izan du abiapuntu orain Gustafssonek. Bartzelonako Black Tulip kolektiboak hartuko du haren lekukoa.